

Hauetz gain beste hainbat neurri abiaraziko dira, CECAk eta AEBk onartutako sektore-akordioaren ildotik

Kutxabanke bezero nagusientzako aurrez aurreko arreta-orduak luzatuko ditu

- 65 urtetik gorako bezeroentzako arreta-ordutegia 8:30etatik 14:00etara zabalduko da
- Erakundea hasia zen kutxazainak, aplikazio mugikorra eta webgunea egokitzen, erabiltzen errazagoak izan daitezen, eta iaiztik adinekoentzako prestakuntza digitaleko programa du abian

2022ko otsailaren 21ean. Kutxabanke adineko pertsonentzako arreta pertsonala hobetzen jarraituko du, bere banku-zerbitzuek ekonomia inklusiborantz aurrera egin dezaten. Beraz, bere gain hartuko ditu **Espainiako Bankuen Elkarteko (AEB)** eta **Espainiako Aurrezki Kutxen Konfederazioko (CECA)** erakundeek gaur lortutako akordio sektorialaren oinarri nagusiak.

Konpromisoaren lehen ondorioetako bat adinekoentzako **arreta presentzialaren ordutegiak zabaltea** izango da. Kutxabanke neurri berri hori martxoaren 15etik aurrera abiaraziko du, eta **8:30etik 14:00etara** kutxa-zerbitzua duten bulegoetan ezarriko da, betiere 65 urtetik gorako bezeroentzat eta OK kontu baten titularrentzat.

Sektoreak iragarri dituen neurrietako batzuk aurreratuta zituen dagoeneko Kutxabanke. Izan ere, duela hilabete batzuk zerbitzu telematikoak egokitzeari ekin zion, eskuragarriago izan zitezten, batez ere **kutxazain automatikoak**, **telefono mugikorretarako aplikazioa** eta **web orria**. Erakundea, gainera, aztertzen ari da adineko pertsonentzako beste aukera batzuen bideragarritasuna, eta hauek praktikan jartzeko aukera.

Aplikazio mugikorra tresna digitalekin ohitura txikiena duten pertsonen baldintzetara egokitu da. 'App' berriak hainbat erabilera-aukera ditu, bezero bakoitzaren digitalizazio-mailaren arabera. 'Hastapeneko' bertsio bat du, laguntza-aukerak eta bezeroarentzako arreta-zerbitzuarekin harremanetan jartzeko aukera ematen dituen. Kutxazainen menuak ere egokitu ditu, erabiltzen errazagoak izanik ohiko eragiketak egin ahal izateko.

Kutxabanke tresna digitaletan **trebatzeko programa aitzindaria** ere jarri zuen abian 2021ean, adineko pertsonen zuzendua, hainbat erakunde publiko eta pribaturekin elkarlanean. Prestakuntza tailerrak dira, eta horien helburua da bankuetako eta bankuetatik kanpoko tresna digitalen erabilerari buruzko oinarritzko kontzeptuak erakustea, batik bat tresna horiek erabiltzeko ohitura ez duten pertsonen.

Kutxabankeko kudeatzaile espezializatuek parte hartu dute lantegiotan, eta ohiko bankuen aldean online jarduteko aukerak zernolako abantaila dituen azaldu dute. Adibidez, Kutxabankeko zerbitzu guztietara eguneko edozein ordutan sartzeko aukera izatea, ohiko bizilekutik mugitu beharrik gabe, ilararik gabe eta zain egon beharrik gabe. Ezagutza horri esker, beste hainbat erakundek eskaintzen dituzten aplikazio eta tresna digitalak erabiltzen ikasi dute parte-hartzaileek.
